

GIZA ESKUBIDEEN GAINEN ERAKUNDE ADIERAZPENA. ABENDUAREN 10a, GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Donostiako Udalak 2003ko abenduaren 10ean egin zuen bilera berezian aho batez erabaki zuen, batetik, berritzea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aplikatzearen aldeko konpromiso aktiboa, eta, bestetik, gonbit egitea batez ere hiriko hezkuntza-komunitateari, Adierazpen hori ikastetxeetan irakurri eta komentatu zezan, Giza Eskubideak egiazki errespetatzea izan dadin elkarbizitzaren oinarria.

Orduko erabaki hartan gure hiriak bizi izan dituen eta oraindik ere bizitzen dituen gertakariak aipatzen ziren: pertsonak hiltzea eta jende asko eta asko batera libertaterik gabe bizitzea, esate baterako.

Bi urte joan dira udalbatza berezi hura egin zela, eta orduan hartutako konpromisoak betetze aldera, Udala –Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen eskuordetzaren nahiz Giza Eskubideen Batzorde Bereziaren bidez—hainbat eta hainbat ekintza egiten aritu da, giza eskubideen defentsa aktiboa zabaltzeko asmoz, giza eskubideen alderdi askotatik: bizitzeko eta askatasun oinarrizkoak izateko eskubidea, terrorismoaren eta biolentziaren biktimekiko ezagupena eta elkartasuna, berdintasunerako eta hezkuntzarako eskubidea, etorkinen eskubideak, “balio hezkuntzako” programak,

zinearen, hitzaldien, jardunaldien, erakusketen, lehiaketen eta abarren bitartez, esate baterako.

Alde horretatik, eta Donostia hiri hezitzailea ere badenez, ekintza asko egin ditu Udalak bakerako hezteko, batez ere haur eta gazteentzat; gizarte justuago, solidarioago eta Giza Eskubideen defentsa aktiboan konpromiso handiagoa duen gizartea eraikitzeko bermeetako bat dela iritzita balio hezkuntza.

Testuinguru horretan, bada, eta 2003ko erabaki haiek nolabait handitzeko asmoz, abenduaren 10ean Giza Eskubideen nazioarteko eguna dela kontuan hartu eta erabaki haiek hartu ditu Donostiako Udalak:

Aktiboki baztertzea biolentzia eta tolerantzia eza erakusten duen jarrera oro, eta hitzaren eta herrien nahiz herritarren arteko komunikazioaren indarra berreskuratzea.

Berrestea erakunde-gizarteen konpromisoa gizaki oren eskubide oinarrizkoenen alde: bizitzeko nahiz oinarrizko eskubideak izatearen alde.

Gordetzea terrorismoaren eta biolentziaren biktimen memoria kolektiboa, ezagupena, elkartasuna eta kaltea konpondu beharra,

Bakerako Hezkuntzan txertatuta haien esperientzia, sentimenduak eta emozioak.

Ahalegin sendoa egitea adostasun politikoa eta soziala lortzeko, askotan behar adinako elkartasunez erantzun ez dien gizartearenganako konfiantza berreskura dezaten biktinek.

Segitzea eta sakontzea bakerako hezkuntzan eta pertsona guztien Giza Eskubideen aldeko lanean, zeinezkorik gabe; batez ere gazteenekin lan eginez, beste erakunde nazioarteko batzuekin, erakunde publiko eta pribatuekin, hezitzaileekin, ikastetxeekin, unibertsitatearekin, familiekin, komunikabideekin, eta elkarte sareekin batera jarduna.

DONOSTIAKO UDALEKO GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE BEREZIA

Donostia, 2005eko abenduaren 10a.